

2001-07-12
aurkibidea**EUSKAL HERRIA**

14

Espilondoren proposamena

Akize eta Iruñea autobidearen bidez lotu beharrean trenbidez egiteko proposatu du Jean Espilondok, Angeluko diputatu sozialistak.

EUSKAL HERRIA

16

UEUren lehen titulazio ofiziala

Hiztek graduondokoa eskainiko du UEUk urritik aurrera, hizkuntza eta teknologiako adituak trebatzeko. UEUren lehen titulazio ofiziala da.

NAZIOARTEKOA

21

Srebrenica oroitzapenean

Atzo sei urte Bosniako serbiarren Armada Srebrenicara sartu zen, eta 8.000 herritar hil zituen. Haiek gogora ekarri dituzte milaka musulmanek.

NAZIOARTEKOA

23

Mohawk indioak

Kanadako Gobernuak eta Kahnawake erretserbako mohawk indioek itun bat hitzartu dute, eta baliteke indioei sei eskuduntza ematea hemendik bost urtera.

GAIAK

34

Ikerkuntzarako enbrioak

EEBBetako zientzialari talde batek propio sortu ditu giza enbrioak, gero ikerkuntzara bideratzeko. Polemika piztu du erabakiak.

KULTURA

41

Transe Express, Bilbon

Transe Express taldeak *Les maudits sonnants* antzeztuko du gaur Guggenheim ondoan, lurretik 40 metroko altueran.

euskaldunon 3.291. zenbakia
Egunkaria

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administratzaile Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Inaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Mikel Sorozabal

Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72664 E Lege Gordailua: SS 800/90 ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA

ORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965

Nafarroa: Irabie Monasterioa, 45-13. esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686

Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114

Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pannecau 14, 1 503 Posta
kubxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

martintxo**hizpideak****Eusko Legebiltzarra erdigunean**

Bakea eta normalizazio politikoa helburu hartuta egin nahi duen bideari buruz argibide garrantzitsu zenbait eman ditu Juan Jose Ibarretxek inbestidura saioan. Mezu nagusia, «aro berriaren» abiapuntu eta gune nagusi Eusko Legebiltzarra izango dela. Eta ekimen zeha-

tzak iragarri ditu, data eta guzti: bilkura monografikoak baketze eta normalizazio politikoari buruz irailean, eta autogobernuari buruz urrian. Madrilekin autogobernuaren sakontzeaz negoziatuko lukeen batzorde politiko bat eratuko litzateke eta, sei hilabeteko epean, beste eztabaida monografiko autogobernuaz.

Autogobernuaren sakontzeari buruz ari denean lehentasuna Gernikako Estatutua betetzeak duela argi utzi du Ibarretxek. Zeharka bezala aipatu ditu esparrua aldatzeko aukera —Estatutua

«eguneratzeko eta egokitze» aukera— eta «euskal gizarteari» kontsulta egitekoa. Eta Jaurilaritzako alderdiek sinatutako gobernu akordioan dioenez «geureganatu, defendatu eta arautu» beharrek den autodeterminazio eskubidearen gauzatzeaz ez du azalpenik eman.

Elkarriketa prozesuaren gunetzat Gasteizko Legebiltzarra ipiniz, bestalde, EAetik kanpoko euskal herritarrak normalizazio politikoari buruzko eztabaidatik kanpo ikusten dituela erakutsi du Ibarretxek.



Idoia Zenarruzabeitia eta Juan Jose Ibarretxe, atzo, inbestidura saioan.

Mario Monti Europako Batzordeko lehiazarako komisarioa.

**Espilondoren proposamena**

Jean Espilondo Angeluko diputatu sozialistak euskal piriñoak zeharkatzeko bide berria proposatu du: trenbide bat, Akizetik Iruñera, Nafarroa Beherea iparretik hegoalderaino zeharkatuta. Lapurdi eta Gipuzkoa arteko errepi-deetan dagoen saturazioari aitzin egiteko asmoa du proposamenak. Horretarako, Nafarroarekiko lotura zuzena aipu du, baina trenbide bidezkoa. Abiadura Handiko Tre-na (AHT) izan daiteke, edo ohiko trena. AHT balitz pertsonen garraiorako erabiliko litzateke, eta ohikoa balitz, merkantziarako. Frantziako Garraio ministro Jean Claude Gayssoti azaldu omen dio jada bere asmoa, eta Frantziako Asanblada Nazionalen eztabaida dadin eskatuko du. Proposamenak Nafarroako Gobernuak eskatzen duen premisa bat betetzen du: Gipuzkoa saihestea. Bestea, berriz, ez: autobidea izatea. Ikusi beharko da zehazki proposamena, eta zer harrera egiten dioten.

Euskal arau fiskalak etengabeko auzia Europan

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako zazpi arau fiskalen kontrako ebazpena eman zuen atzo Europako Batzordeak. Ustekaberik ez; espero zen kontrako erabakia. Hala ere, enpresei lortutako pizgarri fiskaletatik izandako abantailak ordaintzeko agindu die Batzordeak. Eta hori berria da. Ordea, oinarritzko arazoa ez du argitu Batzordeak. Ba al dute aldundiek eta Nafarroako Foru Gobernuak fiskalitate arloan arauak ezartzeko eskumenik, estatuek duten bezala? Hori beti zalantzan jartzetik dator, Batasunaren harmonizazio fiskalaren hastapen garaiotan, euskal erregimen fiskalen gurutzbidea. Bruselaren jokaera honen hasieran Espainiako Gobernuak jarritako errekurtsio kontaezinak daude, gainera. Eta euskal fiskalitatearen defentsa Europan Madrilen esku dago.